

## BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

### 423

*EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 19koa, Haur, Nerabe eta Familien zuzendariarena, zeinaren bidez entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egiten baitira Nazioarteko adopzio-rako batzorde teknikoa eta nazioarteko adopzioarako bitartekaritza-organismoen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren proiektuari dagokionez.*

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak prestatu du Nazioarteko adopzioarako batzorde teknikoa eta nazioarteko adopzioarako bitartekaritza-organismoen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren proiektua, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekinaren 30eko 6/2022 Legearen arabera izapidetu behar dena.

Lege horren xedapenak betez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak agindu bat eman zuen 2026ko urtarrilaren 12an, dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak zuzenean eragiten badie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Ondorio horietarako, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egingo dira Nazioarteko adopzioarako batzorde teknikoa eta nazioarteko adopzioarako bitartekaritza-organismoen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren proiektuari dagokionez, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutakoagatik guztiagatik, eta bat etorritik dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2026ko urtarrilaren 12ko Aginduan xedatutakoarekin, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 15.1.b) artikuluari dagokionez, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea Nazioarteko adopzioarako batzorde teknikoa eta nazioarteko adopzioarako bitartekaritza-organismoen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren proiektuari dagokionez, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, lehen solairua) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragar-ki-taulan: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

2026ko urtarrilaren 29a, osteguna

Hirugarrena.– Alegazioak modu elektronikoa aurkez daitezke (<https://www.euskadi.eus/iragar-ki-taula-elektronikoa/>) helbidean, eta aurrez aurre, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1 – Lakua I eraikina, lehen solairua), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan ere. Alegazioak Haur, Nerabe eta Familien zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 19a.

Haur, Nerabe eta Familien zuzendaria,  
GORKA ORAA MARTÍNEZ DE LAÑO.